

Gizarte Zerbitzuak

Oinarrizko Laguntza

Auzo Unitateak (AU) herritarrek gizarte-zerbitzuetan sartzeko ateak dira eta haien helburua herritarren eskariak jasotzea da, bai eta haien zailtasunei lehen erantzuna eskaintzea eta gizarte-babeserako sistemetan sartzeko bidea erraztea ere. Iruñeak, gaur egun, hamabi auzo-unitate ditu, Alde Zaharrean, Txantrean, Etxabakoitzen, Zabalgunean, Ermitagañan, Iturraman, Mendillorin, Milagrosan, Arrotxapean, Sanduzelain, Donibanen eta Buztintxurin banatuta. 2014an, Iruñeko Auzo Unitateek 42.647 kasu artatu zituzten. Kopuru horrek goraka egin du, aldian-aldian, 2008. urtean artatu ziren 23.576 kasuez geroztik.

	2010	2011	2012	2013	2014
Auzo-unitateetan artatutakoen kopurua	34.019	34.287	36.038	37.468	42.647

15/2006 Foru Legeak ezarritakoarekin bat, Auzo Unitateek Gizarte Zerbitzuetako lau programak eskaintzen dizkiete herritarrei: *Harrera eta gizarte-orientazioa, Norberaren autonomia sustatzeko eta mendekotasunean dauden pertsonei laguntzeko programa, Gizarteratzea, eta Haurrei eta familiei laguntzeko programa.*

Harrera eta gizarte-orientazioko programa.

Herritar guztiei zuzendutako programa da eta haien eskariak jasotzea du xede. Herritarren arazoei lehen erantzuna eskaintzen die, gizarte-babeserako sistemetako prestazioetan sartuz eta, behar izanez gero, oinarrizko laguntzako edo laguntza espezializatuko gainerako programetarako sarbidea emanez. Era berean, helburu du auzoetan elkartegintza sustatzea auzokideen partaidetza eta auzoko elkartasun-sareak bultzatzeko, topaketa-guneak, sare sozialak eta boluntariora indartuz.

Norberaren autonomia sustatzeko eta mendekotasunean dauden pertsonei laguntzeko programa

Iruñeko Udalak hainbat baliabide eskaintzen ditu, hainbat helburu gogoan hartuta: norberaren autonomia sustatzea, mendekotasunezko egoerei aurrea hartzea, eta laguntza ematea bere kabuz moldatzeko arazoak dituzten pertsonei eta mendekotasunean daudenei edo egoteko arriskua dutenei, betiere beren ohiko ingurunean. Behar izanez gero, gainera, etxetik kanpoko baliabide alternatiboetan sartzeko aukera ematen du, banakako, taldekako eta izaera komunitarioko artaren bidez.

Programak bi baliabide biltzen ditu: Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (EELZ) eta apartamentu babestuen bost eraikinak.

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (EELZ)

EELZk 5.406.006 euroko gastua gauzatu zuen 2014an, eta zuzeneko arta eskaintzen du pertsona hartzaileen etxean bertan, gehienez bi orduz egunero. Guztira 1.168 erabiltzailek erabili zuten arta pertsonaleko zerbitzuren bat. ASIMEC (publikoa) eta SARQUAVITAE (pribatua) enpresek 183.909 ordutan eman zuten zuzeneko arta, 1.003 etxebizitzatan.

Halaber, 94.752 bazkari eta afari zerbitzatu ziren, 17 menu desberdin bitarte eskainita. Menu bakoitza lehen eta bigarren plateraz osatua dago, gehi postreaz eta ogiaz, eta erabiltzaileen beharretara egokituta dago. Arropa garbitzeko zerbitzuari dagokionez, 2014an 1.628 zerbitzu eman ziren 39 etxebizitzatan.

EELZren aurrekontua atalez atal

Zerbitzuak	2014an gauzatua	Guztira
Etxez etxeko laguntza	1.876.400	
ASIMEC		4.962.318
Etxez etxeko laguntza	3.085.918	
SARQUAVITAE		
Garbitokia	20.914	20.914
NABUT eta ASPACE		
Elikadura	422.774	422.774
TALLUNCE		
		5.406.006

Adinekoendako apartamentuak eta etxebizitza komunitarioa

Iruñeko Udalak bost apartamentu-eraikin kudeatzen ditu adinekoentzat, honako toki hauetan: Milagrosa auzoko Julián Gayarre kalean, Arrotxapeko Iturriotzeaga plazan, Tulebrasko monasterioaren kalean, Serafín Olave kalean eta Ansoleaga kalean. Horrela, guztira, 252 toki dira, 108 apartamentu bikoitzetan eta banakako 36 apartamentutan banatuak.

Etxetiarrek Iruñeko auzokideak dira, 65 urtetik gorakoak, autonomia pertsonala dutenak eta etxebizitza-

arazoak dituztenak. Auzo-unitateak arduratzen dira toki-eskariak kudeatzeaz eta kasu bakoitzaren azterketa egiteaz. Udalaren programan sartu orduko, hainbat langile arduratzen dira egoiliarren artaz: eraikin-arduradun bat –mantentze-lan txikietarako– eta gizarte-langile bat –hainbat alderdiz arduratzeko, hala nola egoiliarrek zerbitzuan sartzeko eta hautatzeko sistemaz–.

Programan mugimendu handia dago egoiliarrei dagokienez; beren kabuz baliatzeari uzten badiote, haien familiekin bizitzera itzultzen direlako; edo bestela, zahar-egoitzetara joaten direlako edo hiltzen direlako. Toki libreak eskatzaileen itxaron zerrenda baten arabera banatzen dira, puntuazioarekin bat. Apartamentuak hutsik gelditzen direnean, Eraikuntzako Lantegi Eskolako ikasleek eta Gizarte Enplegu Babestuko langileek berritzen dituzte.

Haurrei eta familiei laguntzeko programa

Oinarrizko Laguntzako programa honek haurren babesgabetasunei aurrea hartu nahi die; hartara, babesgabetasuneko arrisku-egoera arinean eta ertainean dauden adingabeen familiak ikertu, baloratu eta haietan esku hartzen dute. Taldeko profesionalek familiarekin batera kasu bakoitzean ezarri beharreko plana prestatzen dute, egoera bakoitzean zer helburu, jarduketa eta baliabide aplikatu behar diren zehazteko. Programak, era berean, hiriko haurren eta nerabeen egoera etengabe ikertu eta aztertzen du, Nafarroako Gobernuak Adin Txikikoak Babesteko ataleko taldeekin elkarlanean.

2014an, 710 familia eta 1.252 adingabe artatu zituzten.

	2010	2011	2012	2013	2014
Haur eta nerabeendako laguntza taldeak					
Artatutako familiak	217	338	563	617	710
Artatutako adingabeak	397	565	650	1.067	1252

Familietan Esku Hartzeko Zerbitzua

Haurren programak berariazko baliabide hau dauka, lehiaketa publiko baten bidez kanpo-entitate batek kudeatua, haurren eta nerabeen garapena edo ongizatea eragozten duten babesgabetasuneko egoeretan esku hartzeko, adingabeen etxean bertan. 2014an, 123 familietan esku hartu zuen, eta 230 adingabe artatu zituen.

Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzua

Esparru honetan prebentzio komunitarioko taldeak ere sartzen dira, zeinek haurrei eta gazteei zuzendutako prebentzio unibertsal eta selektiboko jarduketak egiten baitituzte. Arrotxapea, Txantrea, Sanduzelai, Alde Zaharra eta Etxabakoitz auzoetan kokaturik daude. 2014an, zerbitzu honek 1.990 pertsona artatu zituen, prebentzio unibertsalaren aloan, eta 715 adingabe, prebentzio selektiboan.

Gizarteratzeko programa

Gizarte Ongizatearen laugarren programaren helburua da bazterturik gelditzeko arriskuan edo bazterturik dauden pertsonen gizarteratze-bidea sustatzea; hartara, banakako gizarteratze-ibilbideak diseinatzen dira, eta pertsona horiek gizarte- eta hezkuntza-laguntza jasotzen dute. Halakoetan, elkarrekin esku hartzen dute gizarte-laneko eta gizarteratze arloko teknikariek, eta Gizarte Enplegu Babestuekin eskuz esku eta koordinazioan lan egiten dute.

2014an, auzo-unitateetan, 18 eta 65 urte arteko 647 laguni eman zitzairen banakako laguntza. Era berean, hainbat ikastaro eman dira, prestakuntza arloan eta eguneroko bizitzarako trebetasunak jorratzeko, eta horrekin batera, aholkularitza psikologikoa eskaini zaie, hala profesionalei, nola programaren erabiltzaileei. Adibide gisara, 2014ko ekainean hiri-baratze bat inauguratu zuten Errotazarreko prestakuntza-zentroaren lokalen kanpoaldean. Gizarteratzeko programari (Eguneroko Bizitzarako Trebetasunak) atxikitako 18 lagunek prestakuntza-modulua erabiltzen dute baratze bat eta lorategi bertikal bat egiteko, behin lorezaintzaren gaineko oinarritzko kontzeptu batzuk eskuratuta, hala nola: ernatzea eta landatzea, ureztatzea, egutegia, landatze-markoa eta abar. Prestakuntza-jarduketan, beste eduki batzuk ere jorratzen dira, esaterako, egunero joatea, puntualtasuna, jarraikitasuna, konpromisoa, begirunea, etab.

Zerbitzu Espezializatuak

Oinarritzko Laguntzaren osagarri, Iruñeko Udalak bestelako laguntza-bitartekoak ere baditu, Auzo Unitateetako programekin eskuz esku lan egiten dutenak.

Gizarte Enplegu Babestua

Nafarroako Gobernuarekin batera, Iruñeko Udalak programa bat finantzatzen du, gizarte-zailtasunean dauden pertsonak aldi baterako kontratatzerara bideratua; era berean, pertsona haien gaikuntza pertsonala sustatzen du bai enpleguaren bidez bai laguntza-sisteman sartzearen bidez. Udal-programa honek urtebeteko lana eskaintzen die lan-merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonari, gehienez ere urtebeterako, banakako gizarteratze-ibilbide baten bidez. Hona programaren hartzaileak: prestakuntza eskaseko gazte eta helduak, gutxiengo etnikoak, egoera ekonomiko txarra duten edo gizarteratzeko eta lanera bideratzeko prozesuetan ari diren pertsonak, familia-ardurak dituzten emakumeak, etab.

Programa 180 lagunekoko talde batek –kontrataturako pertsonak, prestatzaileak eta talde teknikoak– osatua da, eta bederatzi lantaldeetan jarduten du: obrak, soldadura, pintura, garbiketa eta atezaintza, ibaiak zein mintegia mantentzeko lanak, jostuntza eta jantzigintza, tapizgintza, udal-jantokia eta koadernaketa eta serigrafia. Zeregin horietako bakoitzean, lantalde bat edo batzuk egon daitezke. Taldeen buru ofizial bat egoten da, hura baita prestakuntza ematen duen pertsona. Halaber, zeregin edo lan bakoitzean arduradun bat egoten da, bai eta laguntza-lantalde bat, gizarte-langileak, arkitekto teknikoak, administrazio langileak eta abarrek osatua.

2014an zehar, programa honetan 208 laguni egin zaie kontratua. Hona programan egindako lanetako batzuk: Etxabakoitzeko auzo-unitateko obrak, non 64 pertsona inguru aritu baitziren 6 lantalde ezberdinetan, Udalak Zabalgunean dituen etxebizitzaren egokitzapen-lanak, Etxebizitzaren Foru Funtzari

gehitzeko xedez, edo Seminario Etxean udal-turismo bulego bat egiteko obrak. Halaber, mantentze-lanak ere egin zituzten, hala nola ikastetxe eta ikastola batzuk pintatzeko lanak edota Arga ibaiaren ertzak eta beste berdegune batzuk garbitzekoak. 2014an, jarraipena eman zitzaion 2012an Koadernaketa- eta Serigrafia-lantaldeak hasitako lanari; izan ere, laguntza ematen dio Udal Agiritegiari egoera onean mantendu eta eusteko hala agiri-funtsa nola funts bibliografikoak eta hemerografikoak.

Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua (EULZ)

Udal Laguntza Zerbitzu honen xedea da beren egoera dela-eta, babes eta laguntza sozial, juridiko eta psikologiko berezia behar duten emakumezkoen laguntza ematea. Horren baitan, lehentasunezkoak jotzen dira hala biktimak babestu eta bere onera ekartzera bideratutako esku-hartzeak nola indarkeriazko egoerei aurrea hartzerako bideratutakoak. Zerbitzu honetako profesionalen iritziz, gizarte- eta ekonomia-egoera larritu izanak eta Nafarroako Gobernuak gizarte-laguntzak eskuratzeko lege-aldaketek eraginda, okerrera egin dute emakumeen bizi-baldintzek eta haien bazterkeria-mailak gora egin du.

2014an, 573 emakumek jaso zuten laguntza; haietatik, 305 berriak izan dira, eta 268k, berriz, lehengo urteetako espedienteak zituzten. Banako 1.908 arta egin ziren, eta haietako 37 larrialdiko artak izan ziren. Artatutako kasu berrien % 44 genero-indarkeriazko edo familia barruko indarkeriazko egoerei dagokie, eta % 34, bikote-gatazka larriei. Horrek esan nahi du esku-hartzeen % 74tan aholkularitza eta laguntza eman direla indarkeriak eragindako kaltea arintzeko eta gainditzeko, eta arriskurik handieneko egoeretan indarkeria hori ager ez dadin prebenitzeko.

Familietan Esku Hartzeko Zerbitzuak 54 emakume eta 79 adingabe artatu zituen 2014an. Zerbitzu hau gizarte-zailtasunean dauden emakumeen eta haien seme-alabei zuzendutako programa bat da, betiere gizarte eta hezkuntza arloetan laguntza eta esku-hartze integrala behar dutelarik. Programan sartu aurreko balorazioa EULZeko taldeak egiten du. Familietan Esku Hartzeko Zerbitzua emakumeen etxean bertan aritzen da (% 33), edota Udalaren apartamentuetan (% 67). Udalak, 2014an, 16 udal-apartamentu izan zituen erabilgarri, eta haien erabilera, batez beste, % 87 izan zen.

Haur eta Nerabeendako Laguntza Taldea

Programa espezializatu honek eskuz esku lan egiten du lehen laguntzako haur eta familien programarekin, programa horrek bideratzen baititu talde honetara babesgabatasuneko arrisku-egoera ertainean dauden haurrak, edota oinarritzko laguntzak behar bezala artatu ezin izateagatik bestelako esku-hartzeak behar dituztenak. Bere baitan etxek etxeko Familietan Esku Hartzeko Zerbitzua bilduta dago. 2014an, 33 kasuz arduratu zen eta 69 adingabe artatu zituen.

Enplegurako Prestakuntza

Enplegua lortzeko zailtasun erantsi bat duten Iruñeko pertsonak gizarteratu eta laneratu daitezzen sustatzea da Gizarte Ongizate eta Berdintasun Alorraren Enplegurako Prestakuntza-programaren ardatz nagusia. Hartara, pertsona horien gaikuntza eta lan-merkatuak balioesten dituen lanbide-, gizarte- eta norberaren gaitasunak garatzen dira. 2014an, guztira, 926 lagunek parte hartu zuten proposamenetako batean, 2013an baino 63 gehiagok.

o Enpleguko Lantegi Eskolak

Enpleguko Lantegi Eskolak programa mistoak dira, prestakuntzakoak eta enplegukoak. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatzen ditu, eta Iruñeko Udalak zein Europako Gizarte Funtzak finantzaketan lagundu eta abiatzen dituzte. 2014ko apirilean, Europako Batzordeko Enpleguko, Gizarte Aferetako eta Gizarteratzeko europar komisario Laszlo Andorrek bisita bat egin zuen Arantzadiko Parkea Enpleguko VIII. Lantegi Eskolara, eta bertatik bertara ezagutu zuen proiektua.

Proiektu-mota honetan, ikasleek, prestakuntza-kontratu baten bidez, prestakuntza teoriko-praktikoa jasotzen dute, eta zeharkako arlo batzuetan trebatzen dira, hala nola funtsezko gaitasunetan, gizarte-prestakuntzan eta prestakuntza pertsonalean, enplegua modu aktiboan bilatzean, etab.ean. Enpleguko Lantegi Eskolek, laguntza horren guztiaren trukean, obra sozialaren bitartez hainbat ekimen gauzatzen dituzte hiri osoaren onerako. Iruñeko Udalak, 2014an, honako Enpleguko Lantegi Eskola hauek bultzatu zituen, non 102 pertsona aritu baitziren.

IZENA	ESPEZIALITATEAK	GAUZATZE-DATAK	PROFILA	LEKU-KOPURUA
Birgaitze Lanetako I. Enpleguko Lantegi Eskola	Eraikinen berritze- eta askotariko mantentze-lanak, Kontserbazio- eta askotariko mantentze-lanak harritan, Berriztatze- eta askotariko mantentze-lanak zuretan, eta Barrualdeak mantentzeko askotariko lanak.	2014/06/01etik 2015/11/30era	Gazteak (16-24 urte) eta helduak (44 urtetik gora)	60 (15, helduentzat)
Arantzadiko Parkea VIII. ELE	Biomasaren erauzketa eta natur ingurunearen kontserbazioa, soldadura eta iturgintza-berokuntza	2013/11/01etik 2015/04/30era	Gazteak (16-24 urte)	42 leku

2014an, Birgaitze Lanetako I. ELEk ordeztu zuen 1986an sortutako Eraikuntzako eta Zaharberritze Lanetako Lantegi Eskola; horrekin batera, prestakuntza-metodologia aldatu zen, espezialitateen arteko txandaketa ezarri baitzen, eta taldeen osaera ere aldatu zen, 60 lekuetako 15 berrogeita lau urtetik gorako lagunengana zuzendu baitziren. 2014ko ekainean abiatutako formula berri honen lehen edizioa 2015eko azaroan amaituko da.

Halaber, 2014an amaitu zuten praktiken aldia Mendekotasunean daudenei arta emateko Enpleguko Lantegi Eskolan ari ziren 15 lagunek. Zahar-etxeetan egiten dute gizarte-lana eta ekainean bukatu zuten prestakuntza-zikloa.

Hona, besteak beste, Birgaitze Lanetako eta Arantzadiko Parkea Enpleguko Lantegi Eskolek 2014an egindako obrak: Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Sozialerako Funtzaren 13 etxebizitzaren birgaitze integraleko lanak, Iruñeko harresiak, hilerria eta Donejakue bidea mantendu eta kontserbatzeko lanak, bertako basoa berreskuratzeko lanak Ezkaba mendian, mantentze-lanak hiriko hainbat zelai eta lorategitan, apaindura-jardinerak egitea Karlos III.aren inguruneke eremu publikorako, Ziadadelako hiri-altzarien konpontze-lanak, berokuntza-sistema eta prebentzio-mantenimendua instalatzea udal-eraikinetan, apartamentu babestuetan, etab.ean.

o Gizarteratze eta Laneratze Taldea (GLT)

Gizarteratze eta Laneratze Taldearen (GLT) xedea da lana eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonen eta aldi berean bazterturik gelditzeko arriskuan edo bazterturik daudenen beren enplegarritasuna handitzea, gizarteratze aldera. Hartara, pertsona horien gaikuntza eta lan-merkatuak balioesten dituen lanbide-, gizarte- eta norberaren gaitasunak garatzen dira. Hori horrela, lan-prestakuntza eta -orientazioa ematen zaizkie, eta gero Taldeak bitartekaritza-lanak ere egiten ditu enpresekin eta partikularrekin. 2014an, Gizarteratze eta Laneratze Taldeak 660 espediente abiatu zituen. Horietako ia % 50 (317) programari heldutako alta berriak dira.

2014an, zerbitzu honek hainbat prestakuntza-ekintza egin zituen, besteak beste, honako hauek: ikasleak gaitzea lana IKTen bitartez era aktiboan bilatzeko, familiaren zerbitzuko pertsonak prestatzea, gaitasun pertsonalak garatzea enplegua bilatzeko, etab. Eta horrez gain, prestakuntza-jardura hauek egin ziren kanpoko entitateekin: "Prestakuntza dementziak jotako pertsonak artatzeko" eta "Garbiketa-lanetarako eta logeletako zerbitzari-lanetarako ikastaroa", Nafarroako Alzheimer gaixoen senideen elkartearekin eta EULENekin elkarlanean, hurrenez hurren.

Bukatzeko, La Caixaren Gizarte Ekintzaren Laneratze 2014ko deialdiaren bitartez, Udalak parte hartu zuen bi prestakuntza-programaren finantzaketan: bat, ostalaritzari buruz, ANAFerekin batera antolatua, eta bestea, enpresa-aholkuritzakoa, laneratzeari begira, Nafarroako Emakume Enpresaburuen Elkartearekin batera.

Hauteskundeak dauden kasu guztietan bezala, 2014an bost laguneko talde bat (lau gizon eta emakume bat), lanean aritu zen Arrotxapeko udal-lokaletan, Europako hauteskundeetarako behar ziren 179 hauteskunde-mahaiak prestatzeko. Besteak beste, honako lan hauek egin zituzten: garbitu eta doitu hautetsontziak, kabinak, informazio-guneetako identifikazio-panelak, hauteslekuen planoak, boto-emaileen banaketa mahaietan kaleen arabera, etab.

o Langabeei lehentasunez zuzendutako prestakuntza-ikastaroak

Iruñeko Udalaren Enplegurako Prestakuntza Zerbitzuak lanerako prestakuntza-jarduketak egiten ditu langabeei zuzenduta, parte-hartzaileak lanera bideratzeko. 2014an, prestakuntza arloko eskaintza gaurkotu zen, Profesionaltasun Ziurtagiri berriak ematea xede harturik, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak homologatutako prestakuntza-zentroa den aldetik.

2014an, guztira 52 pertsonak parte hartu zuten 1. mailako Profesionaltasun Ziurtagiria lortzera bideratutako hiru ikastaroetako batean.

ESPEZIALITATEA	Ordu	Eskola-egunak	Hasierako data	PZ	Leku-kopurua
	kop.		Bukaerako data	Maila	

PZ. Laguntza-jarduerak mintegi, lorategi eta lorategi-zentroetan (PZ osoa)	250	50	06/26 – 09/18	1	20
PZ. Oinarrizko zereginak jatetxe eta tabernetarako (PZ osoa)	210	40	10/1 – 11/28	1	16
PZ. Oinarrizko zereginak jatetxe eta tabernetarako (PZ osoa)	210	40	08/25 – 10/22	1	16

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak parte hartu zuen aipatu jardueren finantzaketan, eta martxoan deitu zituen horretarako diru-laguntzak. 2014ko hiru prestakuntza-jarduerak ekainetik azarora bitarte egin ziren eta haiekin batera gaikako lantegiak eta ikasleei zuzendutako orientazio-saio ezberdinak ere egin ziren, hala taldeka nola banaka.

Abenduan, Fiteroko Monasterioaren kaleko udal-lokalak osoki berritutako sukalde batez hornitu ziren, zeina egiaztatzeke baitago. Bertan, 2015. urtean 1. eta 2. mailako Profesionaltasun Ziurtagiriak emanen dira, Oinarrizko zereginak Sukalderako ikastaroan, behin Nafarroako Enplegu Zerbitzuak derrigorrezko deialdia egin eta gero.

o Espetxeko Emakumeen Moduluko Lantegiak

2014an, Iruñeko Udalak bi prestakuntza-ekintza antolatu, koordinatu eta finantzatu zituen Iruñeko Espetxeko emakumeen modulan, eta haietan 61 emakumek hartu zuten parte.

Biak ala biak otsailetik abendura bitarte egin ziren. Batetik, Kustomizazio Lantegia izeneko prestakuntza-modulua (148 ordu eta 31 ikasle) eman zen, eta, bestetik, Ebaketa eta Jantzigintza prestakuntza-modulua (136 ordu eta 30 ikasle).

o Langabeen kontratazioa, interes orokorreko eta gizarte-intereseko lanak egiteko

Udalak, halaber, langabeak kontratatu zituen interes orokorreko eta gizarte-intereseko lanak egin zituzten, xede horretarako otsailaren 23ko 233/2012 Ebazpen bidez Toki Entitateei diru-laguntzak emateko onetsitako deialdiaren barruan. Helburua da langabeak kontratatzea, eta horrela haien enplegarritasuna hobetzea, lanerako gaitasunak emanez.

2014an diruz lagundu ziren bi proiektuak gauzatzeko, 21 pertsona kontratatu zituzten lehentasunezko zat jotako kolektiboen artean (30 urtetik beherakoak, 50etik gorakoak, langabezian luzez egondakoak, etab.). Egindako lanen artean, esaterako, Fiteroko Monasterioaren kaleko prestakuntza-lokalen hobekuntza-lanak daude, irisgarritasunera egokitzeak eta sukalde bat prestakuntza-beharretarako moldatzekoak. Lan horiek abenduan amaitu zituzten.

- o Prestakuntza-saioen programa, gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideak egiten ari diren pertsonentzat

Udalak, aholkularitza teknikoko kontratu baten bidez, hainbat prestakuntza-ekintza gauzatzen ditu, Gizarte Ongizate eta Berdintasun Alorreko programa ezberdinetan gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideak egiten ari diren pertsonen berriaz zuzenduak. Helburua pertsona horien gaitasuna handitzea da, autonomoagoak izan daitezen, eta, bide batez, laguntzea gizarteratu eta lanera bidera daitezen.

Hainbat arlo jorratzen dira, hala nola eguneroko bizitzari zuzendutako trebetasunak, gizarte-trebetasunak, lanbide aurreko prestakuntza-ekintzak, gaitasun profesionalerako eta laneratzera zuzendutako ekintzak, etab. Prestakuntza-ekintzak banakoak edo taldekoak izan daitezke, eta lanbide ezberdinen esku hartzea gauzatzen da, udal-langile eta -talde batzuen koordinazioa tarteko.

2014an egindako prestakuntza-ekintzen artean honako hauek aipa daitezke: enplegua modu aktiboan bilatzeko ikastaroak, ekintzailatza-lantegiak, etxeko lanetarako ikastaroak, gizarte-trebetasunei buruzko ikastaroak, etab.

Aholkularitza teknikoko kontratua Alaiz taldea eta Gaztelan fundazioa osatutako ABEEri esleitu zitzaion 2011n, eta aurreikusitako luzapenak gauzatu eta gero, 2014an amaitu zen.

- o Prestakuntza-ekintza, etxeko gizarte- eta osasun-arta emateko

Gizarte Ongizate eta Berdintasun Alorrak lehenbiziko aldiz antolatu eta finantzatu zuen etxeko gizarte- eta osasun-arta emateko prestakuntza-ekintza, eta haren bidez, 15 langabek –horietako gehienak, emakume– profesionaltasun-ziurtagiria lortu zuten. Ikastaroa 2014ko abenduan hasi zen, sei hilabeteko iraupena aurreikusita. Parte-hartzaileek 480 ordu teoriko eta 120 praktiko jasoak zituzten ekainerako, ASIMEC enpresa publikoan eta SARquavitae enpresan, zeinek Etxeko Laguntza zerbitzua kudeatzen baitute.

Enplegurako Prestakuntza Programaren Datu Orokorrak

Parte-hartzaile kopurua 2014an

PROGRAMA	PARTE-HARTZAILE KOPURUA
Birgaitze Lanetako ELE	60
Arantza Parkea ELE (2013/11/01 – 2015/04/30)	42
Mendekotasun egoeran dauden pertsonak artatzeko ELE (2013/08/30 – 2014/05/30)	15
Prestakuntza-ekintza, etxeko gizarte- eta osasun-arta emateko	15

GLT-Lan Bitartekotzako Udal Zerbitzua	660
Interes orokorreko eta gizarte intereseko lanak	21
Langabetuendako Ikastaroak	52
Espetxeko prestakuntza-ekintzak	61
GUZTIRA	926

Parte-hartzaile kopurua 2007tik 2014ra:

PROGRAMA	2010	2011	2012	2013	2014
Enpleguko Lantegi Eskolak	117	117	117	174	117
GLT-Lan Bitartekotzako Udal Zerbitzua	520	475	400	551	660
Espetxeko Prestakuntza-ikastaroak eta Lantegiak	232	189	97	116	113
Interes Orokorreko eta Gizarte Intereseko lanak	28	19	24	22	21
Prestakuntza-ekintza, etxez etxeko gizarte- eta osasun-arta emateko					15
Onuradunak, guztira	827	800	700	863	926

Bazterketa handiko pertsonak artatzeko programak

Etterik Gabeko Pertsonak Artatzeko Zentroa

Etterik Gabeko Pertsonak Artatzeko Zentroak (Trinitarios, z.g.) hirian ibiltari dabilzan pertsonendako aterpetxe bat dauka, eta, horrekin batera, jantokia, lanera bideratzeko zentro bat, arropa-garbitegia eta Iruñean erroldaturik egon eta gizarte-bazterketa jasaten duten pertsonak iraupen ertaineko egonaldian hartzen dituen programarako gunea. Zentroan ostatu, higiene- eta elikadura-arloko premiak asetzen dira, aholkularitza eskaintzen da, eta erabiltzaileek lanera bideratzeko lantegira joan eta garbiketa- eta jantoki-lanak egin behar dituzte.

Pasadizokoendako aterpe-eremua 25 lagun hartzeko dago prestatua, eta Iruñean erroldaturikoendako eremua ere 25 lagun hartzeko. Zentroak eskaintzen dituen 50 tokiak beteta egoten dira urteko ia egun

guztietan, eta neguan toki gehiago eskaintzen dira. Tenperatura 3 gradutik jaisten denean, Hotzaren aurkako protokoloa abiarazten da, eta orduan artatzen dira, baita ere, programan ohiko eran sar ez daitezkeen lagunak –baldintzak betetzen ez dituztelako, zehapena jasota daudelako edota egonaldi-denborak agortu zaizkielako–.

2014an, zentroan 2.445 pertsonak jaso zuten arta, hiru programa horietako baten bidez, hau da, aurreko urtean baino % 3,4 gehiagok. Kopuru-gehitze horretan eragina izan zuen jende gehiago artatu izanak Hotzaren aurkako protokoloan; izan ere, 479 artatu zituzten 2014an, eta 2013an, 209, hau da, 2014an 270 gehiago artatu zituzten. 2014an, protokoloa 102 gautan abiarazi zen.

Jaitsi egin da, baina, arta jaso duten pasadizokoen eta erroldatuen kopurua. Batez besteko egonaldia, ordea, luzatu egin da, eta horrela, erabiltzaileen kopurua txikiagoa bada ere, bere horretan eutsi zaio ostatu-gauen eta arta intentsiboen kopuruari. 2014an artatutako 1.716 lagunetatik % 10,95 baino ez dira emakume (188). Arta jasotakoen % 48,6k espainiar nazionalitatea dute, eta 59 nazionalitate ezberdinetakoren erabiltzaileak hartu zituen zentroak.

Bazterketa handiko pertsonak artatzeko programak aurreikusita dauka une jakin batzuetan txartelak ematea hiriko pentsioetan lo egin dezaten, Ostalaritza-establezimenduetan ostatu hartzeko programaren bidez (250 txartel, 2014an), eta autobus-txartelak doan banatzen ditu Nafarroako beste toki batzuetara edo erkidego mugakideetara joan daitezen (1.020, 2014an). Arreta, kalean programak 127 lagun artatu zituen.

Etterik Gabeko Pertsonak Artatzeko Zentroa	2013. urtea	2014
Pasadizokoak	1.568	1.524
Erroldaturikoak	71	65
Arreta, kalean	164	127
Hotzaren aurkakoak	209	479
GUZTIRA	2.007	2.445
Pentsio-txartelak	351	250
Autobus-txartelak	996	1.020

2014ko ekainean, *Izarpean* aurkeztu zen, Iruñeko Etterik gabetasunaren Behatokiak argitaratutako lehen buletina. Udalak eta Xilema Fundazioak argitaratzen dute, eta estatistika-datuak lagun, European Spainian eta Iruñean etterik gabekoek bizi duten egoera aztertzen da.

3) 'Oscus 0,50' udal-jantokia

Iruñeko Udalaren udal-jantokia Navarrería kaleko 31n dago eta 2014an 223 lagun artatu zituen; 282 izan ziren 2013an artatutakoak. 50 toki ditu, baina 3 gehiago izan ditzake, eta diru behar larrian dauden 18 eta 64 urte arteko pertsonen zuzendua dago. Erabiltzaile bakoitzeko kostua, bazkari edo afari bakoitzean, 0,50 euro da. 2014an, 22.878 zerbitzu eman ziren (13.376 bazkari eta 9.502 afari).

Zerbitzuaren erabiltzaileen profila hauxe da: gizonezkoa, jatorri nazionalakoa (artatutakoen % 49), ezkongabea, ardurapean seme-alabarik ez duena eta administrazioetik inolako dirurik jasotzen ez duena. Erabiltzaileen ia % 88 Iruñean erroldaturik daude. 2014an, jaitsi egin zen udal-jantokia erabili zuten adingabeen kopurua: 37 izan ziren, 2013an erregistratu ziren 53 adingabeen kopuru handiaren aldean (22, 2012an).

2014an, 27 nazionalitate ezberdinetako erabiltzaileei eman zieten zerbitzua. Espainiako 110 erabiltzaileez gain, jantokiak hartu zituen, besteak beste, 14 nigeriar, 12 marokoar, 9 ekuadortar, 8 errumaniar, 5 portugaldar eta 4 ukrainar.

Udal-jantokiak urteko egun guztietan eskaintzen ditu bere zerbitzuak, uztailaren 6tik 14ra bitarte izan ezik, ordutegi honekin bat: 11:30etik 16:00etara (bazkariak 13:00etatik 16:00etara ematen dira) eta 18:15etik 21:15era (afariak). Zerbitzu honi heltzeko, Udal gizarte-zerbitzuen programetara edo auzo-unitateetara jo behar da. 2014an, Arrotxapeko, Milagrosako eta Alde Zaharreko auzo-unitateek deribatu zuten jende gehien jantokira, 31, 29 eta 25, hurrenez hurren.

2014an amaitu zitzaion kontratua jantokia elikagaiez hornitzen zuen enpresa esleipendunari; hortaz, 2015ean lizitazioa egin beharko da. 2014.aren bukaeran, erabiltzaile batek egindako proposamenari esker, eta erabiltzaileen partaidetza-prozesu baten ondoren diseinua hautatu eta gero, hasi ziren lokalak pintatzen, zerrenda apaingarri jarraitu batean oinarritutako diseinu batetik abiatuta.

Laguntzen eta hitzarmenen beste deialdi batzuk

Diru-laguntzak, irabazi-asmorik gabeko entitate eta elkarteendako

Gizarte Ekintza

Iruñeko Udalak gizarte-ekintzako jarduerak garatzen dituzten 46 proiektu lagundu zituen diruz. Zehazki, honako sektore hauetan finantzatu ziren proiektuak: minusbalotasun eta menpekotasuna, gizarte-bazterkeria eta arreta adingabeei aisiaren eta denbora librearen arloetan. Guztira 290.000 euro jo zuten laguntzek 2014an. Hona diru-laguntzen kategoria ezberdinetan kopuru handienak jaso dituztenak: ADECCO Fundazioa (12.120 euro), SEI-KHZ Kulturarteko Hezkuntza Zerbitzua (11.822 euro) eta Yoar Gazte Elkarte (12.981 euro).

Berdintasun Plana (Berdintasuna)

Deialdi hau 96.000 euroz hornitua egon zen 2014an, eta irabazi-asmorik gabeko 23 entitateen proiektuak sustatzea izan zuen xede, Aukera Berdintasunerako Plana garatzeko programak gauzatze aldera. Kopuru handienak Alaiz taldeak, IPES Elkarteak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa-NUPEk jaso zituzten, 13.000na euro. Hona, besteak beste, diruz lagundutako proiektuak: Zinema eta Emakumeak Nazioarteko Jaialdia, Generoan espezializatutako modulua ematea *Esku-hartze soziala Gizabanakoekin, Familiekin eta Taldeekin* Unibertsitateko Masterraren barruan. Proiektuok, hurrenez hurren, aipatutako azken bi entitateenak dira.

Hitzarmenak

Udalak, hitzarmenak sinatuz, gizarte-intereseko proiektuak garatzen dituzten elkarte eta entitate jakin batzuekiko laguntza finkatu nahi du. 2014an, hitzarmenak berretsi ziren honako entitate hauekin:

Nafarroako Gobernua. Hitzarmena, Udalarenak diren Zabalgune eta Arrotxapeko 13 etxebizitza lagatzeko Etxebizitza Sozialerako Nafarroako Funtsari, aterperako premia duten pertsonen zuzendua. Kudeatzailea: Adsis-Santa Lucía

COCENFE- Tele Taxi elkarte. 2014an ere, hitzarmen honen sinaduraz, taxi-bonua programa sustatu zen, mugikortasun-arazo larriak dituzten pertsonak diruz laguntzeko, garraio egokitan joan-etorriak egin ditzaten. Laguntzaren zenbatekoa 160.000 euro izan zen.

Nafarroako Elikagai Bankua Fundazioa. Haren jarduna finantzatu zen, zehazki laguntza emanez elikagaiak doan bildu, gorde eta banatzeko egoera sozio-ekonomiko larrian edo gizarte-bazterketa zein pobrezia egoeran dauden Iruñeko herritarren artean. 40.000 euroz hornitua dago.

CORMIN-Elbarritu Ordezkarien Batzordea. 15.000 euroz hornitua dago, eta haren bidez finantzatu dira hala Ezgaitasunen bulegoa nola ezgaitasunari buruzko informazio-eta sentsibilizazio zentroa.

Secretariado Gitano Fundazioa. 2013an abiatutako *Gizartean esku hartzeko prozesua erregulatzea Etxabakoitz, Buztintxuri eta Sanduzelai auzoetan* izeneko ekimena luzatu zen, familia jakin batzuek pairatzen duten gizarte-bazterkeria arintze aldera eta gainerako auzokideekiko bizikidetzaren normalizazioa hobetze aldera. 30.000 euroz hornitua dago.

IPES Gizarte Ikerketarako Talde Eragilea. Finantzaketa, Emakumeen Dokumentazio Zentroaren eta Liburutegiaren jarduna eta funtzionamendua 2014an bermatzeko. Dokumentu-funts horrek 12.650 liburu baino gehiago ditu. Finantzaketak 25.500 euro jo zuen. Hitzarmena urtero berregiten da, 2006az geroztik.

UNICEF- Nazio Batuen funtsa haurrendako. Garapenaren aldeko Lankidetzaren Programaren barruan dago. Laguntza-hitzarmen bat da eta haren xedea da Yolanda tifoia Filipinetan gehien kaltetutako eskualdeei laguntzea. Laguntzaren zenbatekoa 24.000 euro izan zen.

AFAN Nafarroako Alzheimer Gaixoen Senideen Elkarte. Lankidetzaren hitzarmena, prestakuntza-saioak prestatze aldera, gaixo mota hauek modu espezializatuan artatzeko. Halaber, Udalak bitartekari-lana egiten du arlo honetako enplegu-eskaintzan.

Familiendako diru-laguntzak

Gizarte Ongizate eta Berdintasun Alorrak, halaber, *Familiendako diru-laguntzak* biltzen ditu, hau da, Alor horretako zerbitzuek eta programek izapidetzen dituzten laguntza guztiak, krisi- eta gizarte-babesgabetasuneko egoeretan dauden pertsonen eta familien diruz laguntzeko.

Diru-laguntzak ikastetxeetako jantokietan bazkaltzeko. Familiei jantokia ordaintzeko diru-laguntza ematen diete, familia-unitatearen errentaren arabera, Iruñeko Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen

Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleen jantokirako. 2014an, 372.357 euro bideratu ziren horretarako.

Diru-laguntzak, gizarte-larrialdian dauden pertsonendako eta familiendako. Deialdi honen bidez, arindu nahi dira deserrotzea edo gizarte-bazterketa areagotu dezaketen salbuespenezko eta premiazko egoerak. Mantenu- eta ostatu-gastuak eta hornidurakoak (argia, ura, gasa) finantzatzen ditu. 2014an, 382.319 euro bideratu ziren horretarako hasiera batean.

Etxebizitzaren aldeko programa. Programak diruz laguntzen die azpi-etxebizitzan edo etxebizitza desegokian bizi, eta etxebizitza eskuratzea edo etxebizitzari eustea arriskuan jar dezakeen krisi-egoeran dauden familiei, alokairua hein batean ordain dezaten. Laguntzak gutxienez sei hilabetez irauten du eta, gehienez, bi urte. 2014an, guztira 217.964 euro jo zuten laguntzak eman ziren.

Diru-laguntzak, 0 eta 12 urte arteko adingabeak dituzten familiendako, familia-, gizarte- eta lan-ardurak bateragarri egin ditzaten. Behar adina diru-baliabiderik ez duten edo familia-laguntzarik ez duten 0 eta 12 urte arteko adingabekoei laguntzeko zerbitzuak ordaintzera daude bideratuak. 2014an, guztira 12.146 euro jo zuten laguntzetarako deiak egin ziren.

Diru-laguntzak, errehabilitazio-etxeetako egonaldiatarako. Deialdi honen xedea drogamenpekotasunak jota daudenei laguntzea da, baldin eta pertsona horiek ez badute diru-bitartekorik eta Nafarroako Gobernuarekin lankidetza-hitzarmena sinatua duten zentroetan ari badira desintoxikazio-tratamenduan, hau da, Egiarte Ibarre Multzoa zentroan, Gizakia Helburu-n eta Antox-Larraingoako Komunitate terapeutikoan. 22.176 euro bideratu ziren.

Prestazioak	2010	2011	2012	2013	2014
Gizarte-larrialdiko egoeran dauden familiak	150.156	119.783	181.200	306.176	382.319
Eskola-jantokiak	598.308	490.973	508.000	580.000	495.000
Familia ugarien eskola-jantokiak	174.905	135.664	180.000	91.000	
Etxebizitza aldeko programaren alokairuak	175.000	175.000	170.000	170.000	250.000
Tratamenduak errehabilitazio-etxeetan	63.493	45.000	36.000	36.000	36.000
Haurrak artatzea (0-12 urte)	75.461	68.492	80.000	40.000	40.000
Aisialdiko eta denbora libreko proiektuak, gizarte-ekintzakoak barne	180.000	190.000	152.000	290.000	290.000
65 urtetik gorakoendako zinema	8.400	8.400			
Taxi bonua	170.474	181.516	140.000	140.000	160.000

Guztira	1.426.197	1.414.828	1.447.200	1.653.176	1.653.319
---------	-----------	-----------	-----------	-----------	-----------